BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA: “ERALDATZEN” PROGRAMAREN ZERBITZUA KONTRATATZEA ERANDIOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEI BERDINTASUN ARLOKO PRESTAKUNTZA EMATEKO (ESP.: 20CONT-2025/000002)

1- XEDEA

Administrazio-kontratu honen xedea heziketa zerbitzua ematea da. Berdintasuna, feminismoa, aniztasuna eta indarkeria matxistaren prebentzioa izango dira prestakuntza horren ardatzak, eta Erandio eta Astrabuduko Bigarren Hezkuntzako Institutuetan eta Jado Ikastetxean emango da, “Eraldatzen” programaren baitan.

Asmoa da feminismoa lantzea eta harreman askeak sustatzea, hau da, errespetuan eta adostasunean oinarritutako harreman osasungarri eta atsegingarriak sustatzea. Era berean, autoestimua sendotu, neskei ahalduntzen lagundu eta mutilen artean egon daitekeen maskulinotasun toxikoa deseraiki nahi da. Horrekin batera, sexu-aniztasuna eta genero-berdintasuna landuko dira.

Erandioko Udalak feminismoa, sentsibilizazioa, kontzientzioa eta indarkeria matxistaren prebentzioa planteatu ditu programa honen oinarri moduan. Helburua da egiturazko desberdintasun egoeretan eragitea eta gizartea benetan eraldatzen laguntzea.

Zerbitzua emateko, adjudikazio-hartzailea bere langileen prestakuntzaz, antolaketaz eta materialaz arduratuko da.

Zerbitzu hori DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailetako ikasleei eskainiko zaie. Ikastetxeak:

1. IES Astrabudua BHI
2. IES Erandio BHI
3. Jado Ikastetxea

ERALDATZEN programaren barruan prestakuntza ibilbide bat markatuko da, eta bertan hiru bloke tematiko landuko dira, bakoitza hiru ordukoa. Lau hilean bat emango da. Guztira 9 ordu izango dira gela bakoitzean, DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailetan.

1. Blokea: BERDINTASUNA ETA FEMINISMOA

2. Blokea: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA

3. Blokea: ANIZTASUNA

Gutxienez 36 tailer egingo dira ikasturtean zehar, DBHko ikasleei zuzenduta, eskola ordutegian.

Intersekzionalitatearen ikuspegia eta ikuspegi feminista txertatu beharko da. Era berean, identifikatu egingo dira esku-hartze profil nagusiak eta ikasleek dituzten beharrizanak, eguneroko bizimoduan indarkeria matxista prebenitzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko.

2- ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

Adjudikazio-hartzailearen funtzioak hauek izango dira:

a) Bloke bakoitzeko prestakuntza-ibilbidea diseinatu eta ematea, kontuan izanda ikasleen adina eta talde bakoitzaren errealitatea.

b) Ikastetxe bakoitzarekin koordinatzea programa lau ikasmailetan ondo ezartzeko, kontuan izanda beti gela eta maila bakoitzaren ezaugarriak. Adjudikazio-hartzaileak ikastetxe bakoitzeko arduradunekin batera antolatuko ditu saioak.
c) Informazioa eta baliabide praktikoak ematea prozesuan inplikatutako hezkuntza-eragileei (ikasleak, irakasleak eta guraso elkarteak).
d) Prozesuaren fase guztietan Berdintasun arloarekin koordinatzea.
e) Ikasleen artean jokabide arduratsuak sustatzea, autonomia pertsonala eta arrazonamendu kritikoa sustatuz. Bereziki lan egingo da emakume gazteak ahalduntzeko eta mutilen artean maskulinotasun patriarkala deseraikitzeko.
f) Ikasleen eta irakasleen arteko komunikazioa estimulatu eta hobetzea, berdintasunean hezten jarraitzea bermatuko duen konfiantza-giroa sortuz.
g) Egindako esku-hartzea ebaluatzea eta hobetzeko proposamenak egitea. Urteko txosten bat aurkeztu beharko da Erandioko Udaleko berdintasun arloan.
h) Tailerrak monitore berberak egin beharko ditu. Ezinbestekoa bada, enpresak titularra ordezkatu ahal izango du beharrezkoa den denboran. Ordezkatzen duen pertsonaren kualifikazio-maila berdina eduki beharko du, gutxienez. Berdintasun Zerbitzuak langile berri horren inkorporazioaren berri izan beharko du.
i) Enpresak materiala eta beharrezko baliabideak jarriko ditu diseinatutako jarduerak ondo garatzeko, horien artean: manipulazio-jardueretarako eta tailerretarako material suntsikorra.

Zerbitzuko langileei dagozkien gaiak

- Zerbitzua euskaraz izango da, ikastetxeek kontrakoa eskatzen ez badute.

- Askatasun eta intimitate sexualaren aurkako delituengatiko aurrekari penalen ziurtagiri negatiboa eduki beharko dute proiektuari atxikitako langileek.

- Tailerrak emateaz arduratzen diren langileek baldintza hauek bete beharko dituzte: lizentziatura, diplomatura edo gradua; teoria feminista eta genero arloko 500 orduko prestakuntza, gutxienez (arautua edo ez arautua); gutxienez 3 urteko esperientzia antzeko proiektuen kudeaketan, eta EGA ziurtagiria edo 297/2010 Dekretuak baliozkotutako ziurtagiriren bat (azaroaren 9ko dekretua da hori, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten Titulu eta Ziurtagiriak konbalidatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

Zerbitzua ematea eta kudeaketa-lekua

Gutxienez 324 orduko prestakuntza izango da, ikasmaila bakoitzeko. Ikastetxe bakoitzarekin zehaztuko da, beharrizanen arabera.

Gutxienez 10 orduko koordinazioa ezarriko da ikastetxeekin eta gutxienez beste 10 ordukoa Berdintasun Zerbitzuarekin.

Ikastetxeetan bertan emango da zerbitzua: IES Astrabudua BHI, IES Erandio BHI eta Jado ikastetxea.

Ezohiko egoeretan edo zerbitzua aurrez aurre eman ezin den ezohiko kasuetan, adjudikazio-hartzaileak beharrezko baliabideak jarriko ditu zerbitzua beste era batera emateko, online, esaterako.

Lan-programa.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak laneko egutegia aurkeztu beharko du kontratuaren hasieran, ordutegia zehaztuta. Berdintasun Zerbitzuak onartu beharko du.

Egutegian aldaketarik eginez gero, Berdintasun Zerbitzuak aldez aurretik baimendu beharko du.

Erandioko Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin koordinatzea
Arduradun bat izendatuko da Berdintasun Zerbitzuarekin koordinatzeko.

Zerbitzuaren koordinatzaileak bilerak izango ditu Erandioko Udaleko teknikariarekin, aldian-aldian, ekintzak koordinatzeko, iradokizunak aurkezteko, proposamenak egiteko eta zerbitzuak ondo funtzionatzen duela bermatzeko. Horretarako, zerbitzuaren adjudikazio-hartzaileak beharrezko informazio guztia emango dio Erandioko Udaldeko Berdintasun Zerbitzuari, planteatutako jardueren inguruan.

Erandioko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak lanaren kalitatea eta betetze-maila konprobatuko ditu, eta horretarako beharrezko baliabideak erabiliko ditu.

Gainera, enpresak ikastetxe bakoitzeko programaren jarraipena egingo du, harremana mantenduko du eta koordinazio-lana egingo du.

Ebaluazioa eta jarraipena
Enpresa adjudikazio-hartzaileak honako hau entregatuko dio Berdintasun Zerbitzuari:

- Hiru hileroko txosten bat, ikastetxe bakoitzeko. Horren bidez azalduko da ikastetxe bakoitzean egingo den tailer kopurua eta zein ikasmailatan egin den bakoitza; zenbat parte-hartzaile izan diren, sexuaren arabera zehaztuta, eta Berdintasun Arloak egoki ikusten duen beste edozein datu ere emango da.
- Azken memoria justifikatiboa. Hileroko txostenetan lortutako datu guztiez gain, ebaluazio kualitatiboa aurkeztuko da. Horren bidez, lortutako helburuak, metodologia, ebaluazio-adierazleak, egindako inkesten emaitzak, irakasleen ebaluazioa eta Berdintasun Arloak egoki ikusten duen beste edozein informazio azalduko da.

Konfidentzialtasuna
Enpresa adjudikazio-hartzaileak kontratu honen ondorioz eskuratzen duen informazio guztiaren konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa hartzen du. Era berean, zerbitzuaren erabiltzaileen konfidentzialtasun-eskubidea bermatuko du, bereziki datu pertsonalei dagokienez.

Udalak erabiltzaileen inguruko datuak emango dizkio enpresa adjudikazio-hartzaileari, zerbitzua eman ahal izateko. Informazio horri dagokionez, adjudikazio-hartzaileak Datu Pertsonalen babesari buruzko Lege Organikoa bete beharko du, osorik, baita bere garapenari dagokion araudia ere.

Kontratistak konfidentzialtasun eta datuen babeserako arloan dituen betebeharrak kontratuaren baldintza bereziak dira, eta kontratua gauzatu bitartean egiaztatuko da horiek betetzen direla.

Dokumentazioa eta zerbitzuaren zabalkundea
Espedienteen titularra Erandioko Udala izango da. Konfidentzialtasuna errespetatuko da beti.

Kontratu hau burutu bitartean sortzen den dokumentazioa Erandioko Udalaren jabetzakoa izango da. Zerbitzua eman bitartean erabilitako datu, material eta informazioak ezin zaizkie hirugarrenei laga Erandioko Udalaren baimenik gabe.

Zerbitzutik kanpoko ordezkaritza Erandioko Udalari dagokio, beste erakunde, instituzio publiko edo pribatu edo komunikabideekin harremana izateko orduan.

Adjudikazio-hartzaileak edozein zabalkunde edo komunikazio-bidetan parte hartzekotan, Erandioko Udalaren baimena beharko du aldez aurretik, eta zabalduko diren edukiak ere baimendu beharko dira.

Kontratistak zerbitzuaren zabalkunde eta dokumentazio arloan dituen betebeharrak kontratuaren baldintza bereziak dira, eta kontratua gauzatu bitartean egiaztatuko da horiek betetzen direla.

HIRUGARRENA. BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK: BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK – KLAUSULA SOZIALAK

Kontratu honetan txertatu dira erakunde adjudikazio-hartzaileak derrigorrez aplikatu beharreko baldintza tekniko sozialak:

1. Hemen ezarritako printzipio eta betebeharrak: 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena

2. 50 langiletik gorako erakunde edo enpresek gizon eta emakumeen berdintasunerako Plana daukatela egiaztatu beharko dute, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitakoaren arabera.

3. Kontratua burutzeko beharrezkoa den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, kontratistak kontuan hartu beharko du generoaren ikuspegia; hizkuntza ez sexista erabili beharko du; saihestu beharko du emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta berdintasun balioei jarraituz sustatu beharko ditu emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna eta erantzukidetasuna.

   Hori betetzen dela egiaztatzeko, Berdintasun Zerbitzuak errebisatu egingo ditu adjudikazio-hartzaileak egiten dituen kartelak, dokumentuak eta beste edozein euskarri.

Baldintza sozialen kontrola

Adjudikazio-hartzaileak hiru hilerik behin egiaztatu beharko du lan arloko betebeharrak betetzen dituela; hala ere, legeak aitortutako beste fiskalizazio-eskumen batzuk erabili ahal izango dira. Kontratua amaitu baino hilabete lehenago, enpresa adjudikazio-hartzaileak txosten bat aurkeztu beharko du legez edo kontratu bidez eskatzen zaizkion baldintza sozialen inguruan.

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO PARA LA PRESTACIÓN DEL PROGRAMA ERALDATZEN DE FORMACIÓN EN IGUALDAD AL ALUMNADO DE SECUNDARIA DEL MUNICIPIO DE ERANDIO (EXP 20CONT-2025/000002)

1.- OBJETO

El objeto del presente contrato administrativo consistirá en la prestación del servicio de educación en Igualdad y feminismo, prevención de la violencia machista y diversidad en los centros educativos IES Erandio, IES Astrabudua y Jado Ikastetxea del municipio de Erandio, en el marco del programa Eraldatzen.

Se trata por tanto de trabajar el feminismo, fomentar las relaciones libres, respetuosas, consensuadas, placenteras y saludables, reforzar la autoestima, apoyar el empoderamiento de las jóvenes y la deconstrucción de la masculinidad tóxica en los jóvenes y positivar la diversidad sexual, el acuerdo y la igualdad de género en el medio educativo.

El Ayuntamiento de Erandio platea este programa desde el feminismo, la sensibilización, concienciación y prevención de la violencia machista, con el objetivo de incidir en las desigualdades estructurales e impulsar una transformación real de la sociedad.

Para la prestación del servicio, la empresa adjudicataria se encargará de la supervisión, la organización, la formación del personal propio y del material a entregar.

Este servicio será ofrecido al alumnado de 1º, 2º, 3º y 4º de ESO de los siguientes centros:

1. IES Astrabudua BHI
2. IES Erandio BHI
3. Jado ikastetxea

El objetivo del programa ERALDATZEN es establecer un itinerario formativo en que se trabajarán tres bloques temáticos de tres horas cada, uno por cuatrimestre, es decir, un total de 9 horas por cada clase de 1º, 2º, 3º y 4º de ESO.

Bloque 1: IGUALDAD Y FEMINISMO

Bloque 2: VIOLENCIA MACHISTA CONTRA LAS MUJERES

Bloque 3: DIVERSIDAD

Se establecen un mínimo de 36 talleres a lo largo del curso escolar dirigidos a alumnado de ESO en horario lectivo.

Se deberá incorporar la perspectiva interseccional y feminista e identificará así mismo los perfiles prioritarios de intervención y las necesidades del alumnado a cuestiones de prevención y sensibilización de la violencia machista en su vida diaria.

2.- OBLIGACIONES DE LA ADJUDICATARIA:

La adjudicataria se encargará de:

a) Diseño e impartición del itinerario formativo de cada bloque teniendo en cuenta la edad del alumnado y realidad de cada grupo.

b) Coordinación con cada centro para una adecuada implementación del programa en los 4 cursos a los que va dirigido, teniendo siempre en cuenta las especificidades de cada curso y clase. La adjudicataria será la encargada de organizar con las y responsables de cada centro las sesiones que correspondan.
c) Proporcionar información y recursos prácticos a los diferentes agentes educativos implicados en este proceso (alumnado, profesorado y AMPAs).
d) Coordinación con el área de Igualdad en todas las fases del proceso.
e) Promover actitudes de responsabilidad en el alumnado fomentando la autonomía personal y el razonamiento crítico. Especialmente a través del trabajo para el empoderamiento de las mujeres jóvenes y la deconstrucción de la masculinidad patriarcal con los chicos.
f) Estimular y mejorar la comunicación entre el alumnado y el profesorado, generando un clima de confianza que garantice la continuidad de la educación en igualdad.
g) Evaluación de la intervención realizada y propuestas de mejora y continuidad, debiendo presentar un informe anual ante el área de igualdad del Ayuntamiento de Erandio a este respecto.
h) Los talleres deberán realizarse por el mismo monitor o monitora durante la duración de aquellos. En caso de fuerza mayor, la empresa se encargará de la sustitución durante el tiempo que falte la persona titular, que deberá contar al menos con la misma cualificación profesional que la persona sustituida. Dicha incorporación deberá seguir el mismo procedimiento de supervisión por parte del Servicio de Igualdad.
i) La empresa se compromete a aportar a su cargo el material y los recursos necesarios para la correcta ejecución de las actividades diseñadas, entre ellos: material fungible para actividades manipulativas y de taller.

Cuestiones comunes al personal del servicio

- La prestación del servicio será en euskera salvo expresión contraria de los centros.

- Certificación negativa de antecedentes penales por delitos contra la libertad e indemnidad sexual de las personas asignadas al proyecto.

- La persona o personas encargadas de impartir los talleres deberá/n cumplir los siguientes requisitos: licenciatura, diplomatura o grado; formación de, al menos 500 horas en teoría feminista y de género, reglada o no reglada, con experiencia mínima de 3 años en la gestión de proyectos similares y acreditación de EGA o cualquiera de los certificados o títulos convalidados por el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Prestación del servicio y lugar de gestión.
La prestación del servicio será, como mínimo, de 324 horas de formación en el aula por curso escolar, concretándose con cada centro educativo en función de sus necesidades.

Se establen un mínimo de 10 horas de coordinación con los centros educativos y un mínimo de 10 horas de coordinación con el Servicio de Igualdad.

El servicio será prestado en las instalaciones de los propios centros educativos interesados en participar en los programas: IES Astrabudua BHI, IES Erandio BHI y Jado ikastetxea

En situaciones excepcionales o de fuerza mayor que impidan la ejecución del servicio de forma presencial, la empresa adjudicataria arbitrará los medios necesarios para su ejecución, a través de medios telemáticos, online u otros.

Programa de trabajo.
La empresa adjudicataria deberá presentar al inicio del contrato el calendario de trabajo con el reparto horario para su aprobación por el Servicio de Igualdad.

Cualquier modificación sustancial en el calendario deberá ser autorizada previamente por el Servicio de Igualdad.

Coordinación con el Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Erandio.
Se designará una persona responsable del programa que será quien se coordine con el servicio de Igualdad.

La persona coordinadora del servicio deberá mantener reuniones periódicas con el personal técnico del Ayuntamiento de Erandio responsable del servicio al objeto de coordinar acciones, presentar sugerencias, realizar propuestas y garantizar la buena marcha del servicio. Y a tal fin la adjudicataria del servicio suministrará al Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Erandio cuanta información sea requerida respecto al desarrollo de las actividades planteadas.

El Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Erandio podrá comprobar la materialización y calidad de los servicios prestados por los medios que consideren oportunos.

Además, la empresa se compromete a coordinar y realizar los contactos y el seguimiento de los programas de cada centro escolar participante en el proyecto.

Evaluación y seguimiento.
La empresa adjudicataria entregará al Servicio de Igualdad:

- Un informe trimestral de participación por centro especificando número de talleres realizados en cada centro y cursos donde se ha impartido cada taller, número de participantes desagregados por sexo de cada y cualquier otro dato que estime conveniente el Área de Igualdad.
- Memoria final justificativa que deberá reunir además de todos los datos obtenidos de los informes mensuales, la evaluación cualitativa en cuanto a la valoración de objetivos conseguidos, metodología, indicadores de evaluación, resultados de las encuestas realizadas, evaluación del profesorado que ha impartido los talleres y cualquier dato que el Área de Igualdad estime oportuno.

Confidencialidad.
La empresa adjudicataria se compromete a respetar el carácter confidencial y reservado de toda la información a la que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato, así como el derecho a la confidencialidad de las personas usuarias del servicio, especialmente en relación con los datos de carácter personal, incluyendo la debida reserva por parte de las y los profesionales en relación con la información de la que hayan tenido conocimiento sobre las personas usuarias del servicio.

La adjudicataria deberá respetar en su integridad la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de

Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y su normativa de desarrollo, respecto de los datos pertenecientes a las personas usuarias que sean puestos a su disposición por el Ayuntamiento para la correcta prestación del servicio.

Las obligaciones de la contratista en materia de confidencialidad y protección de datos tienen el carácter de condición especial de ejecución del contrato y su cumplimiento se acreditará durante la ejecución del contrato.

Documentación y difusión del servicio.

La titularidad de estos expedientes será del Ayuntamiento de Erandio, a la que cederá, respetándose en todo momento la confidencialidad.

La documentación que se genere durante la ejecución del presente contrato será propiedad del Ayuntamiento de Erandio. Los datos, materiales e informaciones utilizados durante el desarrollo del servicio no podrán ser utilizados ni cedidos a terceros sin consentimiento expreso del Ayuntamiento de Erandio.

La representación externa del servicio, a efectos de relación con otras entidades, instituciones públicas o privadas o medios de comunicación corresponde al Ayuntamiento de Erandio.

La participación de la adjudicataria en cualquier medio de difusión o comunicación en relación con el servicio deberá ser previamente autorizada por el Ayuntamiento de Erandio, así como los contenidos de las intervenciones.

Las obligaciones de la contratista en materia de documentación y difusión del servicio tienen el carácter de condición especial de ejecución del contrato y su cumplimiento se acreditará durante la ejecución del contrato.

TERCERA. OTRAS CUESTIONES DE INTERES: CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCION - CLAÚSULAS SOCIALES

Se incorporan al presente contrato las especificaciones técnicas de carácter social que serán de aplicación obligatoria para la entidad adjudicataria:

1. Cumplir los principios y obligaciones establecidos en DECRETO LEGISLATIVO 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

2. La entidad o empresa con una plantilla superior 50 personas, deberán acreditar el diseño y aplicación efectiva del Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Hombres y Mujeres.

3. En toda la documentación, publicidad, imagen o materiales que deban aportar las entidades licitadoras o que sean necesarios para la ejecución del contrato, deberá hacerse un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar con valores de Igualdad la presencia equilibrada, la diversidad y la corresponsabilidad.

   Para la comprobación del cumplimiento de esta obligación, la cartelería, documentación y cualquier otro soporte que elabore la entidad adjudicataria en la ejecución del contrato será revisado por el Servicio de Igualdad responsable del contrato.

Control de ejecución de las cláusulas sociales

Sin perjuicio de otras facultades de fiscalización de las condiciones de ejecución del contrato que otorga la legislación vigente a la entidad, la empresa adjudicataria deberá acreditar trimestralmente el cumplimiento de las obligaciones en materia laboral. Un mes antes de la finalización del contrato, la empresa adjudicataria deberá presentar un informe relativo al cumplimiento de las obligaciones sociales anteriores que le fueran exigibles legal o contractualmente.